

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IHOBE, SA INGURUMENA KUDEATZEKO SOZIJETATE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urtarrilaren 25ean IHOBE, SA Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du.

Gainera, IHOBEk 2016ko ekitaldian bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia zuzentasunez bete duela ondorioztatu du, nahiz zuzendari nagusi ohiari aurre-abisurik ez emateagatik ordaindutako kalte-ordainaren kalkuluan ez ziren aintzat hartu uztaileen 6ko 3/2012 Legeak finkatutako mugaketak, lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzkoa.